



Hainbesterako eta gehiago

1936KO AZAROAREN HASIERAN Arrasateko bost emakume fusilatu zituzten tropa frankistek. Floren-
cia Olazagoitiak 40 urte zituen hil
zutenean. Hiru seme-alaben ama
zen eta bost hilabete haurdun hil
zuten. Baina halako kasuak “sal-
buespena” izan ziren; gerran atxi-
lotu, kartzelaratu eta fusilatutako
gehienak gizonezkoak izan ziren.
*Arrasate 1936: emakumea, gerra
eta errepresioa* dokumentalean
lekukotza eman dutenak gerrako
protagonisten azken lerroan
daude, ezkutuan, isilpean. Galtzai-
leen alderdian daude eta, gainera,
emakumeak dira.

Dokumentalaren aurkezpenean,
Intxorta 1937 elkarteko kide Julia
Mongek esan zuen lekukotza horiek
biltzea ez dela lan erraza izan,
batzuek atzera egin zutelako, eta
hitz egin dutenek, askotan, beren
bizipenei dagokien garrantzia ema-
ten ez dietelako. Agian horregatik,
lekukotzak apalak dira, duinak. Eta
dokumentalaren egileek tonu horri
eusten asmatu dute. Gertatutakoa-
ren irudi errealik ezean, dramatiza-
zioetara jo dute. Errepresentazioak
egoki girotzeaz gain, dramatismo
funsgabea saihestu dute. Protago-
nistak ez dira biktimismoan jausten,
biktimak izan arren. Bizirik aterat-
zeak ez baitu esan nahi biktimak
izan ez zirenik. Fusilatuen emaz-
teak, arrebak, alabak ziren, haien
gorpuen bila Ondarretako kartzela-
ra joan behar izan zuten, edo ilea



*Arrasate 1936:
emakumea, gerra eta
errepresioa.*

Dragoi Produkzioak, 2013.

larru-arras moztu zieten eta horrek
zekarren umiliazioa jasan behar
izan zuten.

Lehengo batean, blog batean ira-
kurri nuen emakumei ilea mozte-
rena faxisten kontua izan ohi dela,
baina ez eksklusiboki. Bigarren
Mundu Gerraren amaieran nazi-
ekin harremanak izandako emakume
frantziar askori ere ilea moztu zie-
ten, umiliazio publiko gisa. Doku-
mentala ikustean, blogaren sarrera-

ren amaieran irakurle batek utzitako
iruzkinaz gogoratu nintzen: “Ez da
hainbesterako, ilea hazi egiten da”.
Iruzkina sinplismoa iraingarria
da, eta metafora gisa, erabat okerra.
Ilea berez hazten baita, baina gerra
ostean emakume arrasatear haien-
tzat gauzak ez ziren bere onera eto-
rri besterik gabe. Erbestera joan
behar izan zuten batzuek, familia
osoa jaso behar izan zuten besteek,
eta gogor lan egin behar izan zuten,
lan egiteko aukera zutenean behin-
tzat, lan bila zebiltzanek erantzun
hau jaso ohi baitzuten maiz: “Gal-
tzaileentzat ez dago lanik”.

Emakume horien meritua ez da
soilik gerraren ondorioak jasan
izana, gerra oste luzean aurrera
egiteko gaitasuna baizik. Baina
haien hitzetan ez dago heroikota-
sunik, ezta amorrurik ere, gerran
bizitakoekin bakeak egin balituzte
bezala. Dokumentalean hitz egi-
teari uko egin ziotenek nahiago
dute ez oroitu. Parte hartu duten
batzuek besterenak nabarmendu
dituzte, beren buruari garrantzia
kenduta. Baina dokumentalaren
amaiera aldera lekuko batek urte-
tako gutxiesteei, mesprezuei, isilta-
sunari erantzuten die, serio, kame-
rari zuzen-zuzen
begira: “Hainbestera-
ko ez zen izango...
Hainbesterako ez,
gehiago”. ■



Nagore Irazustabarrena